




## ISEI - IVEI

### C6. ETENGABEKO IKASKUNTZAKO PARTAIDETZA





**ISEI•IVEI**

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU  
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN  
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

---

**Edizioa: 2011ko abendua**

**© ISEI•IVEIk argiraratua**

**ISEI•IVEIK ARGITARATUA**

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea

Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo

Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84

info@isei-ivei.net - [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

**KOORDINATZAILEA**

Paz Martínez

**AHOLKULARITZA TEKNIKOA**

Eduardo Ubieta



## INKESTAREN AURREKO LAU ASTEETAN PRESTAKUNTZA EDO HEZKUNTZA-JARDUERETAN PARTE HARTU DUEN 25-64 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAREN EHUNEKOA.

**Europar Batasunaren helburua 2020. urterako: Etengabeko prestakuntzako partaidetza-maila Europar Batasunean batez beste lanerako adineko (25-64 urte) biztanleriaren % 15era gutxienez heltzea.**

Etengabeko ikaskuntzaren ideia ezagutza eta informazioaren gizarteak egiten duen proposamenik erakargarrienetakoa da. Ezagutzaren gizarteak prestakuntzaren kontzeptua bizitzako aldi jakin bati (gehienetan, gaztaroari) soilik lotuta ez egotea eskatzen du.

Europako Batzordeak honela definitu zuen etengabeko ikaskuntza: “bizitzan zehar norberaren, hiritarren, gizartearen eta enpleguaren ikuspuntutik ezagupenak hobetzeko asmoz gauzatzen den edozein ikaskuntza-jarduera” (Batzordearen jakinarazpena: “Etengabeko ikaskuntzako europar gunee bat errealitate bihurtu”, 2001).

Definizio horren arabera, Europako herritarrek bizitza osoan aurre egin behar izaten diote euren ezagupenak, gaitasunak eta jarrerak eguneratzeko erronkari, ahalik eta norberaren garapen maila altuena lortu ahal izateko eta lan-merkatuan ahalik eta prestakuntzarik onenarekin mantendu ahal izateko.

Gaur egungo krisi-egoeran, etengabeko prestakuntzak lana duten pertsonen ezagupen eta trebetasun berriak, eta enplegurako baliagarriak, eskaintzen dizkie. Lanik ez duten pertsonentzat prestakuntza ezinbestekoa da lanean berriro hasteko, lanerako gaitzen eta birziklatzen dituelako eta euren ezagupen maila hobetzen duelako. Azken batean, herrialdeetako produktibitatea eta giza kapitala handitzen ditu, eta pertsona bakoitzaren prestakuntza-beharrei erantzuten die.

Ikaskuntza-eredu hori, Batzordearen beraren iritziz, bat dator Europako gizarte-ereduarekin eta, horrenbestez, 2010erako asmo handiko helburua ezarri zen: 25-64 urteko biztanleriaren %12,5ek gutxienez etengabeko ikaskuntzako jardueretan parte har dezan lortzea. Helburu hori 2010-2020 hamarraldirako mantendu da, eta tasa % 15era igo da.

Batzordeak adierazle hau finkatu zuenetik zenbait aldaketa izan dira. Gaur egun, inkesta egin aurreko lau asteetan gauzatu diren mota guztietako ikastaroak edo tailerrak hartzen dira prestakuntzatzat, hezkuntza arautukoak, ez-arautukoak edo informalak direlarik ere. 2005etik aurrera datuak lau hiruhilabeteetako urteko batez bestekoa adierazten du. Adierazlearen definizioan egindako aldaketa kontuan izanik, 2005. urtearen aurreko urteetako datuak irizpide berriaren arabera birkalkulatu dira. Ordura arte kontuan hartzen zen datua 2. hiruhilabeteak, edo udaberrikoa, zen.

2010ean Europar Batasunean, hasierako 15 herrialdeetan 25-64 urteko biztanleen % 10,4 mota bateko edo besteko ikasketak egiten ari ziren, eta 27 herrialdeen multzoan, % 9,1. Bilakaera aztertzen badugu, oso datu egonkorra dela ikus dezakegu, eta,



ondorioz, 2010ean ez da % 12,5era heltzeko helburua bete. Oso neurri zorrotzak hartu ezean, nekez helduko da 2020rako helburutzat finkatu den % 15era. Ideia horren aldeko beste argudio bat ere badago: 2010ean EBko herrialdeen bi herenetan tasa % 10 baino baxuagoa zen. Aipatzeko modukoa da, baita ere, tasaren balioen barreiadura handia; adibidez, Bulgarian (% 1,2) edo Errumanian (% 1,3) tasa % 2 baino baxuagoa da, eta, aldi berean, Danimarkan (% 32,8), Suedian (% 24,5) edo Finlandian (% 23,0), % 20 baino handiagoa.

Euskadin, 2000-2010 aldiko bilakaerak agerian uzten duenez, aurrerapena gertatu da etengabeko prestakuntzako tasan: 2000ko % 4,5etik 2010eko % 13,0ra. Euskadik 2005ean lortu zuen finkatutako helburua, eta 2005-2010 aldian gainditu egin du. Hala ere, oso datu egonkorra da, eta, beraz, EBko herrialdeetan gertatzen den bezala, komenigarria izan liteke 2020ko helburua betetzeari begira neurri zehatzak hartzea.

Autonomia erkidegoei dagokienez, 2010ean Nafarroa (% 13,2) bakarrik heldu zen, Euskadirekin batera (% 13,0), finkatutako helburura. Hala eta guztiz ere, gainontzeko autonomia erkidegoetako tasak % 10-12 ingurukoak dira, eta 2010ean Espainiako batez bestekoa (% 10,8) Europar Batasuneko 27 herrialdeetako batez bestekoa (% 9,1) baino puntu bat handiagoa da. Azken bost urteotako bilakaera aztertzen badugu, zenbait gorabehera txiki ikus ditzakegu, baina ez diote batez bestekoaren egonkortasunari eragin (2005ean, % 10,5; 2010ean, % 10,8).

2010ean, Alemanian, Grezian eta Portugalen izan ezik, Europar Batasuneko herrialdeetan eta autonomia erkidegoetan emakumezkoek gizonezkoek baino proportzio handiagoan hartu zuten parte etengabeko prestakuntzako jardueretan. Jarduera horietako partaidetza dela eta, sexu aldagaiaren aldetiko alderik handienak Suedian (13,1 puntu), Danimarkan (13,0 puntu) eta Finlandian (8,2 puntu) izan dira, etengabeko prestakuntzako tasarik handiena duten herrialdeetan alegia. Sexuen arteko alderik txikienak Errumanian (0,2 puntu), Bulgarian (0,2 puntu) eta Hungarian (0,3 puntu) izan dira. Euskadiren kasuan sexuaren aldetiko aldea 3,6 puntukoa da, eta Nafarroakoarekin batera (3,8 puntu), handiena autonomia erkidegoen artean. Sexuaren aldetiko alderik txikienak 2010ean Balear uharteetan (0,1 puntu), Kantabrian (0,3 puntu), Asturiasen (0,5 puntu) eta Madrilan (0,7 puntu) izan dira.




### C6.1 taula eta grafikoa:

Hezkuntza edo prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera. Euskadiko datuak.

Urtea	Sexu biak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Aldea <sup>1</sup>
2000	4,5	4,9	4,1	0,8
2001	4,9	5,7	4,1	1,6
2002	6,1	7,1	5,1	2,0
2003	6,2	7,1	5,3	1,9
2004	6,5	7,9	5,2	2,6
2005	12,7	14,6	10,7	3,9
2006	12,4	13,7	11,2	2,5
2007	13,2	14,5	12,1	2,4
2008	13,5	15,0	12,0	3,0
2009	13,3	15,3	11,3	4,0
2010	13,0	14,8	11,2	3,6

<sup>1</sup>Balio positiboek emakumezkoek prestakuntza jardueretan gizonezkoek baino proportzio handiagoan parte hartzen dutela adierazten dute. Kasu batzuetan aldea ez dator bat, batez besteko puntuazioak biribiltzeko hamarrenak doitzearen ondorioz.



Iturria: INE, Encuesta de Población Activa (EPA-2005). EUROSTAT, Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko Europar Inkesta). Urteko batez bestekoak 2008-2010 urteetarako..



## C6.2 taula:

**Prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera<sup>1</sup> autonomia erkidegoetan<sup>2</sup>.**

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
<b>Espainia</b>	<b>4,1</b>	<b>4,4</b>	<b>4,4</b>	<b>4,7</b>	<b>4,7</b>	<b>10,5</b>	<b>10,4</b>	<b>10,4</b>	<b>10,4</b>	<b>10,4</b>	<b>10,8</b>
Andaluzia	4,3	4,5	4,2	4,4	4,4	9,5	9,6	9,8	9,5	9,5	10,2
Aragoi	3,7	3,5	3,5	4,1	4,0	11,3	11,8	11,5	11,1	10,8	11,7
Asturias	3,3	3,4	3,4	4,5	3,7	8,9	8,1	8,5	9,9	8,9	8,9
Balear uharteak	3,3	3,6	4,1	4,5	5,4	9,5	10,6	9,4	8,6	9,1	9,8
Kanariak	5,1	6,2	6,4	6,4	6,5	11,6	10,6	11,1	10,8	11,0	11,6
Kantabria	2,8	2,1	2,3	2,4	2,6	9,7	8,6	7,6	7,9	7,3	8,4
Gaztela eta Leon	5,7	5,4	6,0	6,2	6,4	11,7	11,0	10,7	11,1	10,1	11,2
Gaztela-Mantxa	4,6	4,5	4,7	5,0	4,7	8,6	8,8	9,7	9,4	9,7	10,4
Katalunia	2,7	3,2	2,8	3,2	2,9	10,0	9,6	9,0	8,8	9,8	9,9
Valentziako Erk.	6,4	6,8	6,3	6,6	6,6	10,5	10,5	10,5	11,1	10,9	11,6
<b>Euskadi</b>	<b>4,5</b>	<b>4,9</b>	<b>6,1</b>	<b>6,2</b>	<b>6,5</b>	<b>12,7</b>	<b>12,4</b>	<b>13,2</b>	<b>13,5</b>	<b>13,3</b>	<b>13,0</b>
Extremadura	2,6	3,3	3,1	3,7	3,3	9,5	9,0	12,4	10,9	10,1	10,2
Galizia	3,5	4,4	4,9	5,1	6,0	10,5	11,3	11,1	11,3	11,5	10,6
Madril (Erk.)	3,2	3,6	3,5	4,0	3,7	12,2	11,6	11,3	11,7	11,1	11,4
Murtzia	4,5	5,0	4,8	5,5	5,6	8,7	9,3	10,1	10,0	10,3	10,6
Nafarroa	5,8	6,6	6,4	6,1	3,9	12,1	12,0	13,4	12,6	12,9	13,2
Errioxa	1,7	2,4	2,3	2,0	2,0	10,4	9,0	9,3	9,5	9,9	11,1
Ceuta eta Melilla	7,2	6,2	5,0	6,0	5,0	12,4	11,9	10,6	11,7	12,3	11,2

Iturria: INE, Encuesta de Población Activa (EPA-2005). EUROSTAT, Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko Europar Inkesta). Urteko batez bestekoak 2008-2010 urteetarako.


<sup>1</sup> 2000-2007 aldiko datuak Eurostatek finkatutako metodologiaz kalkulatu dira, hiruhilabeteetako datuen urteko batez bestekoetan oinarriturik. 2005etik aurrera irakaste-jardueren estaldura handiagoa dagoenez, aurreko urteetako datuekiko konparagarritasuna falta da.

<sup>2</sup> Datuak arretaz interpretatu behar dira, lagin txikietatik ateratakoek laginketa-errore handiak izan ditzaketelako.



C6.2 grafikoa:

Prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa autonomia erkidegoetan. 2005 eta 2010 urteak.



Handienetik txikienera ordenatua, 2010. urtea erreferentziatzat harturik.

Iturria: EUROSTAT, Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko Europar Inkesta). Urteko batez bestekoak 2010 urterako. INE, Encuesta de Población Activa (EPA-2005), 2005. urterako.




C6.3. taula eta grafikoa

Prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa<sup>3</sup> autonomia erkidegoetan<sup>4</sup>. Orokorra eta sexuaren arabera. 2010 urtea.

	Sexu biak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Aldea <sup>1</sup>
<b>Espania</b>	<b>10,8</b>	<b>11,6</b>	<b>10,0</b>	<b>1,6</b>
Andaluzia	10,2	10,8	9,6	1,2
Aragoi	11,7	13,2	10,2	3,0
Asturias	8,9	9,2	8,7	0,5
Balear uharteak	9,8	9,9	9,8	0,1
Kanariak	11,6	13,1	10,1	3,0
Kantabria	8,4	8,6	8,3	0,3
Gaztela eta Leon	11,2	12,9	9,7	3,2
Gaztela-Mantxa	10,4	11,3	9,5	1,8
Katalunia	9,9	10,9	8,9	2,0
Valentziako Erk.	11,6	12,1	11,0	1,1
<b>Euskadi</b>	<b>13,0</b>	<b>14,8</b>	<b>11,2</b>	<b>3,6</b>
Extremadura	10,2	11,3	9,2	2,1
Galizia	10,6	11,3	10,0	1,3
Madril (Erk.)	11,4	11,7	11,0	0,7
Murtzia	10,6	11,2	10,1	1,1
Nafarroa	13,2	15,1	11,3	3,8
Errioxa	11,1	12,7	9,6	3,1
Ceuta	11,8	13,1	:	:
Melilla	10,7	:	:	:

<sup>1</sup>Balio positiboek emakumezkoek prestakuntza jardueretan gizonezkoek baino proportzio handiagoan parte hartzen dutela adierazten dute. Kasu batzuetan aldea ez dator bat, batez besteko puntuazioak biribiltzeko hamarrenak doitzearen ondorioz.

(:) Datua falta edo fidagarritasun gutxikoa da



Handienetik txikienera "Sexu biak" irizpidearen arabera ordenatua.

Iturria: EUROSTAT, Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko Europar Inkesta). Urteko batez bestekoak.

<sup>3</sup> 2005etik aurrera irakaste-jardueren estaldura handiagoa dagoenez, aurreko urteetako datuekiko konparagarritasuna falta da.

<sup>4</sup> Datuak arretaz interpretatu behar dira, lagin txikietatik ateratakoek laginketa-errore handiak izan ditzaketelako.





## C6.4 taula:

**Europar Batasuneko herrialdeetan prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera.**

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
<b>EB (27 herrialde)</b>	<b>7,1 (e)</b>	<b>7,1 (e)</b>	<b>7,2</b>	<b>8,5 (b)</b>	<b>9,3</b>	<b>9,8</b>	<b>9,7</b>	<b>9,5</b>	<b>9,4</b>	<b>9,3 (p)</b>	<b>9,1</b>
<b>EB (25 herrialde)</b>	<b>7,6 (e)</b>	<b>7,5 (e)</b>	<b>7,6</b>	<b>9,0 (b)</b>	<b>9,8</b>	<b>10,3</b>	<b>10,2</b>	<b>10,0</b>	<b>9,9</b>	<b>9,8 (p)</b>	<b>9,6</b>
<b>EB (15 herrialde)</b>	<b>8,1 (e)</b>	<b>8,0 (e)</b>	<b>8,1</b>	<b>9,8 (b)</b>	<b>10,7</b>	<b>11,3</b>	<b>11,2</b>	<b>10,9</b>	<b>10,8</b>	<b>10,8 (p)</b>	<b>10,4</b>
Alemania	5,2	5,2	5,8	6,0 (i)	7,4 (i)	7,7	7,5	7,8	7,9	7,8	7,7
Austria	8,3	8,2	7,5	8,6 (b)	11,6 (i)	12,9	13,1	12,8	13,2	13,8	13,7
Belgika	6,2 (i)	6,4	6,0	7,0	8,6 (b)	8,3	7,5	7,2	6,8	6,8	7,2
Bulgaria	:	1,4	1,2	1,3	1,3	1,3	1,3	1,3	1,4	1,4	1,2
Zipre	3,1	3,4	3,7	7,9 (b)	9,3	5,9 (b)	7,1	8,4	8,5	7,8	7,7
Danimarka	19,4 (b)	18,4	18,0	24,2 (b)	25,6	27,4	29,2	29,2	30,0	31,6	32,8
Eslovenia	:	7,3	8,4	13,3 (b)	16,2	15,3	15,0	14,8	13,9	14,6	16,2
<b>Espainia</b>	<b>4,5 (b)</b>	<b>4,4</b>	<b>4,4</b>	<b>4,7</b>	<b>4,7</b>	<b>10,5 (b)</b>	<b>10,4</b>	<b>10,4</b>	<b>10,4</b>	<b>10,4</b>	<b>10,8</b>
Estonia	6,5 (b)	5,4	5,4	6,7	6,4	5,9	6,5	7	9,8	10,5	10,9
<b>Euskadi*</b>	<b>4,5</b>	<b>4,9</b>	<b>6,1</b>	<b>6,2</b>	<b>6,5</b>	<b>12,7 (b)</b>	<b>12,4</b>	<b>13,2</b>	<b>13,5</b>	<b>13,3</b>	<b>13,0</b>
Finlandia	17,5 (b)	17,2	17,3	22,4 (b)	22,8	22,5	23,1	23,4	23,1	22,1	23,0
Frantzia	2,8	2,7	2,7	7,1 (b)	7,1	7,1	7,7	7,5	6,0	6,0	5,0
Grezia	1,0	1,2	1,1	2,6 (b)	1,8	1,9	1,9	2,1	2,9	3,3	3,0
Herbehereak	15,5	15,9	15,8	16,4 (b)	16,4	15,9	15,6	16,6	17,0	17,0	16,5
Hungaria	2,9	2,7	2,9	4,5 (b)	4,0	3,9	3,8	3,6	3,1	2,7	2,8
Irlanda	:	:	5,5	5,9 (b)	6,1	7,4	7,3	7,6	7,1	6,3	6,7
Italia	4,8 (b)	4,5	4,4	4,5	6,3 (b)	5,8	6,1	6,2	6,3	6,0	6,2
Letonia	:	:	7,3	7,8	8,4	7,9	6,9	7,1	6,8	5,3	5,0
Lituania	2,8	3,5	3,0 (b)	3,8	5,9 (b)	6,0	4,9	5,3	4,9	4,5	4,0
Luxenburgo	4,8	5,3	7,7	6,5 (b)	9,8	8,5	8,2	7,0	8,5	13,4 (p)	13,4
Malta	4,5	4,6	4,4	4,2	4,3 (b)	5,3	5,4	6,0	6,2 (p)	5,8 (p)	5,7
Polonia	:	4,3	4,2	4,4	5,0 (b)	4,9	4,7	5,1	4,7	4,7	5,3
Portugal	3,4	3,3	2,9	3,2	4,3 (b)	4,1	4,2	4,4	5,3	6,5	5,8
Erresuma Batua	20,5 (b)	20,9	21,3	27,2 (b)	29,0	27,6	26,7	20,0 (b)	19,9	20,1	19,4
Txekiar Errepublika	:	:	5,6	5,1 (i)	5,8	5,6	5,6	5,7	7,8	6,8	7,5
Eslovakia	:	:	8,5	3,7 (b)	4,3	4,6	4,1	3,9	3,3	2,8	2,8
Errumania	0,9	1,0	1,0	1,1	1,5 (b)	1,6	1,3	1,3	1,5	1,5	1,3
Suedia	21,6	17,5 (b)	18,4	: (u)	: (u)	17,4 (p)	18,4 (p)	18,6 (p)	22,2 (b)	22,2 (p)	24,5

(:) Datua falta da. (e) Balio kalkulatuak. (b) Segidaren haustura. (p) Behin behineko datua. (i) Ikus testu argigarria. [http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY\\_SDDS/Annexes/lfsi\\_edu\\_a\\_esms\\_an1.pdf](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_SDDS/Annexes/lfsi_edu_a_esms_an1.pdf). (u) Fidagarritasun urriko datuak.


\*Euskadirako 2000-2007 urteetako INEren datuak.

Iturria: EUROSTAT, Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko Europar Inkesta). Urteko batez bestekoak.



### C6.4: grafikoa

**Europar Batasuneko herrialdeetan prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa. 2005. eta 2010. urteak.**



Handienetik txikienera "2010.urtea" irizpidearen arabera ordenatua".

\*Euskadiraiko 2005eko datua INErena da

Iturria: EUROSTAT, Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko Europar Inkesta). Urteko batez bestekoak.



## C6.5 taula:

**Europar Batasuneko herrialdeetan prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera. 2010. urtea.**

	Sexu biak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Aldea <sup>1</sup>
<b>EB (27 herrialde)</b>	<b>9,1</b>	<b>10,0</b>	<b>8,3</b>	<b>1,7</b>
<b>EB (25 herrialde)</b>	<b>9,6</b>	<b>10,5</b>	<b>8,7</b>	<b>1,8</b>
<b>EB (15 herrialde)</b>	<b>10,4</b>	<b>11,4</b>	<b>9,4</b>	<b>2,0</b>
Alemania	7,7	7,6	7,7	-0,1
Austria	13,7	14,7	12,7	2,0
Belgika	7,2	7,4	7,0	0,4
Bulgaria	1,2	1,3	1,1	0,2
Zipre	7,7	7,9	7,5	0,4
Danimarka	32,8	39,3	26,3	13,0
Eslovenia	16,2	18,3	14,1	4,2
<b>Espainia</b>	<b>10,8</b>	<b>11,6</b>	<b>10,0</b>	<b>1,6</b>
Estonia	10,9	13,0	8,6	4,4
<b>Euskadi</b>	<b>13,0</b>	<b>14,8</b>	<b>11,2</b>	<b>3,6</b>
Finlandia	23,0	27,1	18,9	8,2
Frantzia	5,0	5,4	4,6	0,8
Grezia	3,0	2,9	3,1	-0,2
Herbehereak	16,5	17,1	15,9	1,2
Hungaria	2,8	2,9	2,6	0,3
Irlanda	6,7	7,2	6,3	0,9
Italia	6,2	6,5	5,9	0,6
Letonia	5,0	6,5	3,4	3,1
Lituania	4,0	4,8	3,2	1,6
Luxenburgo	13,4	14,0	12,8	1,2
Malta	5,7	6,1	5,2	0,9
Polonia	5,3	5,9	4,8	1,1
Portugal	5,8	5,7	5,8	-0,1
Erresuma Batua	19,4	22,4	16,4	6,0
Txekiar Errepublika	7,5	7,7	7,3	0,4
Eslovakia	2,8	3,3	2,2	1,1
Errumania	1,3	1,4	1,2	0,2
Suedia	24,5	31,1	18,0	13,1


<sup>1</sup>Balio positiboek emakumezkoek prestakuntza jardueretan gizonezkoek baino proportzio handiagoan parte hartzen dutela adierazten dute. Kasu batzuetan aldea ez dator bat, batez besteko puntuazioak biribiltzeko hamarrenak doitzearen ondorioz.

Iturria: EUROSTAT, Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko Europar Inkesta). Urteko batez bestekoak.



### C6.5 taula:

**Europar Batasuneko herrialdeetan prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera 2010. urtea.**



Handienetik txikienera "Sexu biak" irizpidearen arabera ordenatua.

Iturria: EUROSTAT, Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko Europar Inkesta). Urteko batez bestekoak.